


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Facultad de Economía y Empresa  
Ekonomia Eta Enpresa Fakultatea

## **NAZIOATEKO ZERGA-SISTEMA**

### **AUTOEBALUAZIOA**

**Saila**  
**Ekonomia Aplikatua II (Ogasun Publikoa)**



Autoebaluazio egoki baterako, ikasleak planteatutako galdetegi hau burutu beharko du. Galdetegiaren erantzunak dokumentu honen bukaeran daude.

### **GALDETEGIA**

1. Egungo zein gertakisun ekonomikorik justifikatuko luke Nazioarteko Ogasun Publiko baten sorrera?
2. Zein helburu bete beharko lituzke Nazioarteko Ogasun Publiko batek?
3. Zein ezaugarri dituzte Ondasun Publikoak? Adibideren jar dezakezu? Zeintzuk dira Ondasun Publikoan egindako gastuen nazioarteko ezaugarriak? Zein erakundek lagun dezake arazoaren konponbideak ematen?
4. Zer da kanpo-eraginbat? Zein arazo dauka? Zerk lagun dezake arazoa konpontzen?
5. Ba al dauka zentzurik geografikoki Zerga-administrazio subirano batean lokalizatutako zerga-eskumenak?
6. Zein da zerga-erakunde nazionaleri errezen iruzur egin diezaiokkeen kapitala?
7. Zer ta Tobin tasa? Zer hobetsiko luke eta zer kaltetuko luke mekanismo honek?
8. Zer da ingurumen-zerga? Zein abantaila ditu? Zeintzuk dira dituen arazoak?
9. Adierazi nazioarteko zergen beste adibide batzuk.
10. BEZa harmonizatzerako orduan zein da funtsezko galderetako bat?
11. Aurreko galderatik abiatuz, zergapenaren zein bi printzipio sortzen dira? Zertan oinarritzen dira bi printzipio hauek?
12. Zergatik da ekidiezina edo saihetsezina BEZaren harmonizazioa?
13. Zergatik helmuga tasadun BEZak ez du, gure eredu sinplean, kapitalaren ordainsaria aldatzen?
14. Zergatik jatorri tasadun BEZak kapitalaren ordainsaria aldatzen du gure eredu sinplean?

15. Politika ekonomiko edo fiscal batek A eta B herrialdeen Baliagarritasunaren indiferentzi kurba (edo ekoizpenaren kurba) goruntz desplazatuko balu (hau da, aurreko indiferentzi kurba baino altuago batera), bi herrialdeentzat politika onuragarri bat izango litzateke
16. Bi herrialdetako BEZa harmonizatzerako orduan existitzen diren tasen batazbesteko aritmetiko bat aplikatzen denean, orokorrean, zergak jeisten dituen herrialdeak efizientzia irabazten du eta zerga igotzen duenak efizientzia galtzen du, baina irabazten duenaren efizientiaren irabazia galtzen duenaren galera baino handiagoa da. Emaitza hau herrialdeen arteko hitzarmenean jatorriaren arabera tasa edo helmugaren arabera tasa ezarri izanaren arabera da?
17. Zerk ziurtatzen digu lehi perfektuan herrialdeen arteko kapitalaren produktibitate marjinalak berdinduko direla?
18. BEZa helmuga motako baldin bada eta herrialdeak zehazten baldin badu, zergatik zerga hori kontsumitzaileen gain erortzen da?
19. BEZa jatorri motakoa baldin bada, zergatik aurreko kasuan zerga ekoizlearen gain erortzen da?
20. Zer esan nahi du BEZaren harmonizazioak hobekuntza paretiar potentzial bat eragin dezakeela, baina ez eraginkorra?
21. Ze harmonizazio mota desberdin burutu daitezke?
22. Zuzeneko zergapena harmonizatzerako orduan, zein da funtsezko galdera?
23. Zein bi zerga-printzipiok ematen diote erantzuna aurreko galderari? Zertan oinarritzen dira bi printzipio hauek?
24. Zein da zuzeneko zergapenaren harmonizazio eskasaren arrazoia?
25. Ze desberdintasun dago zergapen-bikoitz ekonomikoa eta zergapen-bikoitz internazionalaren artean?
26. Zeintzuk dira zergapen-bikoitz internazionalaren edo nazioarteko zergapen-bikoitzaren arrazoiak?
27. Zein mekanismo existitzen dira zergapen-bikoitz internazionala ekiditzeko?

28. Zertan datza Ssalbuespen Metodoa?
29. Zertan datza helmugan salbuespena metodoa?
30. Zertan datza progresibotasunarekin helmugan salbuespena metodoa?
31. Zertan datza jatorrian salbuespena metodoa?
32. Zertan datza Kuotan Kenkaria metodoa (inputazioa)?
33. Zertan datza tope maximoaren kenkari metodoa?
34. Zertan datza ordaindu gabeko zergen kenkaria metodoa?
35. Zertan datza azpian dagoen zergaren kenkari metodoa?
36. Zertan datza oinarrian kenkaria metodoa?
37. Zergatik kapitalaren nazioarteko esleipen efizienteak herrialde bietan (bi herrialdeen kasuan) kapitalaren produktibitate marjinal berdina exijitzen du?
38. Herrialde guztietan produktibitate marjinala berdina izatea beharrezkoa badin bada kapitalaren esleipenean efizientzia globala lortzeko, honek herrialde guztietako kapitalaren zenbatekoa berdina izan behar dela esan nahi du?
39. Produktibitate marjinalak berdinak izatea beharrezko baldin bada baterako efizientzia lortzeko; zergatik esaten da, ikuspuntu nazioanal batetik begiratur, herrialdeek nahiago izaten dutela herrialdeko bertako produktibitate marjinala (kapitalaren errendimendu gordinak) beste herrialdeko zerga ondorengo errendimenduekin berdintzen dituen politika bat?
40. Zergatik esaten da, edozein direlarik autoritate ekonomikoen helburuak, zergekin leian kapitala herrialdeen artean mugituko da kapitalaren etekin gordinak berdinak izan arte?
41. Errentaren gaineko zergapenari buruz hitzegiten dugunean, nortzuk ordaintzen dituzten zergak betebeharrak pertsonalagatik eta nortzuk betebeharrak errealagatik?
42. Nor da subjektu pasiboa betebeharrak pertsonalagatik zergapenaren kasuan? Ze errenta zergapetzen dira?

43. Nor da subjeto pasiboa betebehar errearen zergapenaren kasuan? Ze errenta zergapetzen dira?
44. Zein da petsona bat egoiliarra kontsideratzeko arau orokorra?
45. Zein beste kasutan kontsideratzen da persona fisiko bat egoiliarra dela?
46. Nortzuk aukera dezakete zergak PFEZaren bitartez ordaintzea?
47. Zein da petsona juridiko bat egoiliarra kontsideratzeko arau orokorra?
48. Zerga Administrazioak noiz ulertuko du paradisu fiskal baten edo tributazio eza dagoen herrialde baten dagoen elkarre bat espainiar egoiliarra dela?
49. Zein papel jokatzen dute hitzarmenek egoitza bikoitzaren arazoaren kasuan? Zein kriterio erabiltzen dira?
50. Zein lurralde herrialde/lurralde kontsideratzen dira paradisu-fiskal?
51. Zer da beharrezkoa lurralde bat paradisu-fiskal kontsideratua izan daiten? Zein momentutan lurralde batek paradisu-fiskal izateari utziko dio
52. Zein lurralde kontsideratzen dira “tributazio eza” dagoen lurralde gisa?
53. Zeintzuk dira errenta bat Espainian lortua edo ekoiztua izan dela kontsideratzeko elkartze puntuak?
54. Zein errenta kategoriarik aplikatzen zaio “establezimendu iraunkorra” elkartze puntua?
55. Zein errenta kategoririk aplikatzen zaie “Jarduera burutzen den lekua” elkartze puntua?
56. Zein errenta kategoririk aplikatzen zaie “Jarduera erabiltzen den lekua ” elkartze puntua?
57. Zein errenta kategoririk aplikatzen zaie “Etekinak sortzen duen entitatearen egoitza” elkartze puntua?
58. Zein errenta kategoririk aplikatzen zaie “Ondasunaren edo eskubidearen egoera” elkartze puntua?
59. Zein errenta kategoririk aplikatzen zaie “Ordaintzailea ” elkartze puntua?

60. Espainiar estatúan lortutako edo ekoiztutako zein errenta kontsideratzen dira EEEZren menpe daudela, baina EEEZren zergapenetik salbuetsita daudela?
61. Espainian lortutako edp ekoiztutako zein errenta ez dira kontsideratzen EEEZn menpe daudela?
62. Zein errentek osatzen dute EEEZren zerga-oinarria?
63. Noiz egiten da EEEZren sortzapena?
64. Zein zerga-tasa aplikatzen dira EEEZan?
65. Kenkaririk edp hobaririk exititzen da EEEZn?
66. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten kasuan, zein da EEEZren arau orokorra?
67. Nortzuk daude behartuta establezimendu iraunkor gabe lortutako errentak EEEZren bitartez aitortzera?
68. Noz ez dago derrigortasunik establezimendu iraunkor gabe lortutako errentak EEEZren bitartez aitortzeko?
69. Aitorpenerako zein epe zehazten dira EEEZn establezimendu iraunkor gabe lortutako errenten kasuan?
70. Zer dira establezimendu iraunkor gabe lortutako errenten EEEZren aitorten kolektiboak? Zein kasutan ez da existitzen aukerarik aitorten kolektiboa egiteko?
71. Zein faktorek argi uzten dute nazioarteko zergapen bikoitza ekiditzeko neurrien garrantzia?
72. Noiz gertatzen da zergapen bikoitz bat? Zergatik zergatzen da?
73. Zertan datza Lurralde-printzipio edo Jatorrian Zergapena?
74. Zertan datza Personalista-printzipioa edo egoitzaren zergapena?
75. Zer da zergapen bikoitz ekonomikoa?
76. Noiz gertatzen da zergapen bikoitz juridikoa?

77. Zein motatako soluzioak ezarri daitezke zergapen bikoitza ekiditzeko? Zertan datza horietako bakoitza?
78. Zeintzuk dira zergapen-bikoitzaren hitzarmenen helburuak?
79. Zein elementuz osatuak daude zergapen-bikoitzaren hitzarmenak?
80. Zein método existitzen dira zergapen-bikoitza ekiditzeko?
81. Zein xedapen berezi barneratzen dira zergapen-bikoitzaren hitzarmenetan?
82. Zertan datza diskriminazio-ezaren xedapen berezia?
83. Zertan datza lagunarteko prozedimenduaren xedapen berezia?
84. Zertan datza zerga-bilketan laguntzearen xedapen berezia?
85. Espainia eta Frantziaren artean sinatutako zergapen-bikoitzaren hitzarmenean, zein zerga barneratzen dira?
86. Espainia eta Frantziaren artean sinatutako zergapen-bikoitzaren hitzarmenean, nola ezabatzen da zergapen-bikoitza espainian?
87. Zergatik esaten da BEZa zeharkako izaera duen zerga bat dela?
88. Ze operazio zergapetzen ditu BEZak?
89. Inbertsio-ondasunen erosketek jasaten duten kuotei ematen zaien tratamendu fiskalaren arabera, ze BEZ clase existitzen dira? Zertan datza Klase bakoitza?
90. Ze BEZ tasa ezartzen ditu legeak?
91. Nola jokatuko dute enpresario eta profesionalek zerga ezartzerakoan?
92. Enpresario eta profesionalek, beraien BEZaren aitortzean, esportazio eta inportazioak barneratzen dituzte? Eta EB komunitatearen barnean egindakoak?

93. Ze tratamendu jasaten dute partikularrek egindako komunitatearen barneko erosketek? Eta profesionalak egindakoek?
94. Zein motatako zerga da Sozietateen gaineko Zerga (SZ), zein errenta zergapetzen ditu eta zein da, arau orokor bezala, zerga honen subjeto pasiboa?
95. Nola kalkulatzen da SZren zerga-oinarria?
96. Nola zehazten da SZaren zerga-oinarria?
97. SZan, zein zerga-tasa aplikatzen dira orokorrean empresa handi, ertain eta txikientzat?
98. Nola kalkulatzen da SZaren zerga-zorra?
99. Zergatik erabiltzen da persona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ)?
100. Zein motako zerga da PFEZ? Zein errenta zergapetzen ditu?
101. Zeintzuek osatzen dute PFEZaren zerga-oinarri orokorra?
102. Ze bi zerga-tasa bereiz daitezke PFEZaren zerga-oinarri orokorraren barruan? Zer sartzen da horietako bakoitzaren barruan?
103. Azal ezazu, laburbilduz, zerga-zorraren kalkulua PFEZan.




**RESPUESTAS AL CUESTIONARIO**

1. Ekonomia gero eta internazionalizatuago dago ia aspektu gehienetan.  
Ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko merkataritza gero eta garrantzitsuagoa da, BPGaren %20 eta %70 izateraino kasu batzutan. Mugaz gaindiko lanak egiten dituzten edo lan egiteko muga zeharkatzen duten pertsonen fluxu internazionala gero eta altuagoa da, eta, batez ere, finantza-kapitalen nazioarteko fluxuen tamaina izugarritzakoa da.  
Ekonomiako aspektu gehien globalizazioak, Ogasun Publikoaren arazo eta helburuak gero eta internazionalagoak izatea eragiten du eta aspektu internazional hauek oso garrantzitsuak dira ez bakarrik terminu kualitatiboek dagokionez (pizgarriak, arauketa...) baita terminu kuantitatiboek dagokionez ere (aurreko grafikoetan %1eko hazkunde edo jeitsierak izango lukeen eragina ikusi beharko litzateke).
2. Ogasun Publiko internazional batek (globalizatua edo helburu globalak dituen) Ogasun nazional batek dituen helburu berdinak izan beharko lituzke (printzipioz behintzat): Efizientzia, Ekitatea, Egonkortasuna eta Hazkundera
3. Lehiakortasun eza kontsumoan (baztertzeko ezintasuna). Adibide gutxi gora-behera garbiak: Defentsa, ikerkuntza, justizia, polizia. Nabariak dira gastu guzti hauen aspektu internazionalak (Siriako krisia, groga-trafikoa, ikerkuntza-patenteak eta beraien kontrola...).  
"Konponbideak": NBE, NATO, Hayako Auzitegia, interpol... Ez dira ez nazioz-gaindiko erakundeak eta ezta erakunde nazionalen batura ere. Ezer ez edukitzea baino hobeto baldin badira ere, ez dirudi oso operatiboak direnik.
4. KANPO-ERAGINAK Kanpo-eragina, berez, aspektu askotan ondasun-publikoen kasu partikular bat da. Jabetza arazoa sor daiteke, hau da, eskubide hori sortzen ez denez, ez dago ez merkaturik eta ezta preziorik ere, beraz, ez dago konponbide lehiakor (efiziente) bat izan ahalko litzatekeen ezer. Kutsadura, euri-azidoa, osasungarritasuna, medikuntza prebentiboa (izurriteak). Konponbide gisa honako hauek planteatu daitezke: Munduko Osasun Erakundera, Ingurugroaren nazioarteko hitzarmenak (Rioko goi-bilera, Dibertsitate biologikoaren hitzarmena...)
5. Geografikoki Zerga-administrazio subirano batean lokalizatutako zerga-eskumenak gero eta zentzu gutxiago dauka gero eta globalizatuago den gizarte batean. Zergen arloan existitzen da disfuntsio handiago bat lurraldean oinarria duen estatuko erakunde baten eta errealitate global baten artean. Egungo mundu-krisia adibide argi bat da. Ez bakarrik bere kontrola zerga-jardueraren bitartez, baita bere arauketa, adibidez: eskumena daukaten zerga-erakundeei nazioarteko informazioa (politika ekonomikoaren kontrol hobeto bat lortzeko edo zerga-ordaintzetik ihes egitea saihesteko) eta administrazioen arteko zerga-armonizazioa

6. Argi eta garbi, finantza-kapitala da zerga-erakunde nazionaleri errezen iruzur egin diezaiokeena. Hala eta guztiz ere, beste zerga-oinarri batzuk ere gero eta gehiago deslokalizatzen dira (lana, zerbitzuak...)
7. Tobin tasa, Nazioarteko finantza-transakzioen gaineko zerga bat da, zeinek espekulazioa eta nazioarteko desegonkortasun finantzieroa murrizteko helburua duen. Mundu mailan egun bakoitzean bankuen artean egiten diren transakzioak TRILIO BAT DÓLAR baino altuagoak direla kalkulatu da (Rubio Guerrero) . Mekanismo honek ibertsioa eta epe-luzeko kredituak hobetsiko lituzke eta epe laburreko mugimenduak zigortuko lituzke. Paradisu-fiskalen bitartez egindako iruzur-fiskala errazten du. Finantza-erakunde garrantzitsuenak kaltetuenak izango lirateke.
8. INGURUMEN-ZERGA Ingurumen-zerga (carbon tax) CO2ren gaineko zerga bat izango litzateke, berotze-efektu globalen aurka borrokatzeko. Onura-printzipioa aplikatzen duelaren abantaila dauka (gehiago kutsatzen dut, gehiago hazten naz (hobeto bizi naiz), gehiago ordaintzen dut). Gainera, kudeatzeko zaila ez den zerga bat da. Are gehiago, herrialde gehienek helburu berdina duten hidrokarburoen gaineko zerga bat dute. Garapen-bidean dauden herrialdeekin asimetria arazoaz gain, arazo politikoak (subiranotasunaren lagatzea) eta korporazio handien interesen arazoak existitzen dira.
9. Nazioarteko zergen adibideak: Abiazioaren fuel-olioa, internet eta posta-elektronikoaren gainekoa (bit tax)...
10. Bi herrialde edo gehiagoren artean zeharkako-zergapena harmonizatu nahi baldin bada, honako hau da funtsezko galderetako bat : nork ezarri behar du eta nork kobratu behar du zerga? Ondasuna ekoizten den herrialdeak (balio erantsia) edo kontsumitzen den herrialdeak?
11. Hemendik abiatuz,zergapenaren bi printzipio sortzen dira: Helmugaren printzipioa eta Jatorriaren printzipioa. Lehenengo kasuan zerga ondasuna kontsumitzen den lekuko herrialdeak ezarriko luke eta bigarren kasuan ekoizten den lekuko herrialdeak.
12. Adostasun batera helduko ez balira, zergapen bikoitza gerta liteke ekoizleak helmugaren printzipioa aplikatuko balu eta herrialde kontsumitzaileak jatorriaren printzipioa aplikatuko balu (herrialde bera izan ahalko litzateke).
13. Bi herrialdeetako kontsumorako prezioak soilik aldatzen dira, ez dira ekoizpenekoak aldatzen, beraz ekoizleari berdina zaio edozein herrialdetan zerga bat ezartzea (edo bereizketak egotea). Beste modu batera esanda, zerga kontsumitzen den lekuaren arabera

ordaintzen denez eta ez ekoizten den lekuaren arabera, ekoizleak ez du pizgarririk ekoipena deslokalizatzeko BEZean bereizketak daudelaren arrazoiagatik.

14. BEZa ezartzen den herrialdeko ekoizpen prezioak aldatzen direlako, eta kontsumoaren prezioak, beraz ekoizlearentzat ez da indeferentea edozein herrialdetan zerga ezartzea (edo desberdintasunak egotea). Beste modu batera esanda, zerga ekoizten den lekuaren arabera ordaintzen denez eta ez kontsumitzen den lekuaren arabera, ekoizleak pizgarriak ditu BEZean ematen diren diferentzien arabera ekoizpena deslokalizatzeko.
15. Grafikoan ikus daitekeen moduan, erantzuna ezetz da. Ezistitu daitezke egoerak non politika aplikatu ondoren bi herrialdeek irabaziko luketela oinarrizko egoerarekin konparatuz (2 egoera). Baina baita gerta daiteke egoera egonkor berrian herrialde batek irabaztea eta besteak galtzea. (1 egoera).



16. Grafikoan ikusi daiteen bezala, erantzuna ezetz da. Bi kasuetan herrialde batek irabaziko du eta besteak galdu, baina irabazten duenaren ongizatearen irabazia beti da bestearen galera baino handiagoa gure eredu sinplean.
17. Lehia perfektua dagoenez, kapitalari ordainsari berdina ordaindu beharko zaio herrialde bietan (bestela kapitala ordainsari altuagoa duen herrialde joango litzateke). Expresa buruek kapitalaren produktibitate marjinala bere ordainsariarekin berdinduz maximizatzen dituzte beraien mozkinak, hau ere berdina izango da herrialdeen artean. Baina gainera, lehia perfektuan ondasunen prezioa berdina denez herrialdeen artean, kapitalaren produktibitate marjinala ere berdindu egin beharko litzateke.
18. Ekoizleek zerga guztiak eragina salmenta prezioarengan izan dezan saiaturiko dira eta lortuko dute, zeren eta kontsumitzaileek ondasun hori beste herrialde baten (B) erosten saiaturen badira nazioarteko prezio gehi A herrialdeko BEZa ordaindu beharko dute ondasuna inportatzerakoan, BEZ helmuga motakoa baita.
19. Aurreko kasuan gertatzen den gauza berdina gertatuko delako. Ekoizleak zerga prezioetara trasladatzen saiaturiko dira, baina ez dute lortuko kontsumitzaileen ondasuna zergarik gabeko nazioarteko merkatuan (B herrialdean) erosten saiaturiko direlako.
20. Honek zera esan nahi du: gerta daiteke lortutako irabazien ondorioz ekonomia osoaren hobekuntza bat egotea, baina ez da zertan hobekuntza bar izan behar bi herrialdeentzat.

Gerta daiteke herrialde batek irabaztea eta besteak galtzea, baina galtzen duenak besteak irabazten duena baino gutxiago galtzea. Ikusi gardenkietako 12. eta 17. gardenkiak.

21. Harmonizazioa, eremu batean zergaren homogenizazioa burutzea da, tasa komun bateruntz. Harmonizazio hau total izan daiteke (denak tasa berdin batera heltzea) edo erlatiboa (ezarritako tasaren inguruan kokatzea). Tasa, aurretiaz existitzen den bat izan daiteke. Azkenik, harmonizazioa berehalakoa izan daiteke edo denboraldi desberdinetan tasa horretaruntz hurbiltze joatea.
  
22. Bi herrialde edo gehiagoren artean zuzeneko zergapena harmonizatu nahi baldin bada, funtsezko galdera honako hau da: nok ezarri behar du zergapena eta nork kobratu behar du zerga? Errenta sortzen den lekuko herrialdeak edo errenta jasotzen duen petsonaren herrialdeak
  
23. Bi printzipio aipa daitezke: bizilekuaren edo helmugaren printzipioa eta jatorriaren edo iturriaren printzipioa. Lehenengoko kasuan, egoiliarren errentak zergapetzen dira (berdin da errenta horiek non lortu diren) eta bigarren kasuan herrialdean bertan sortutako errentak zergapetzen dira (berdin da nork lortzen dituen errenta horiek).
  
24. Zergapen bikoitzaren arazoak.
  
25. Zergapen-bikoitz ekonomikoa: Bi zergek zerga-oinarri bera momentu berean zergapetzen dutenean gertatzen da (normalean SZ).  
Zergapen-bikoitz internazionalaren edo nazioarteko zergapen-bikoitza: bi administraziok momentu berean zerga-oinarri bera zergapetzen dutenean gertatzen da.  
SZ zergaren kasuan, bi kasuak gerta daitezke.
  
26.
  - Bizilekuaren definizioagatik: Bi herrialdeetako arautegiek gizabanako bat bi herrialdeetako egoiliar pasibotzat jotzea posible egiten badute, zergapen-bikoitza gertatuko da
  - Bizilekuaren printzipioa eta iturriaren printzipioa aldi berean ezartzea
  - Transferentzia prezio posibleen “konpentsazio” gisa.
  
27.
  - Salbuespen Metodoak: helmugan salbuespena (Lurraldetasun printzipioa), progresibotasunarekin helmugan salbuespena, jatorrian salbuespena (bizilekuaren printzipioa).
  - Kuotan kenkaria aplikatzeko metodoak (kreditu fiskala edo inputazioa): kuotan kenkaria aplikatzeko método sinplea (inputazioa), tope maximoarekin, oradindu gabeko zergen kenkariarekin eta azpian dagoen zergaren kenkariarekin.
  - Oinarria kenkaria aplikatzeko metodoa.

28. Errentak herrialde baten soilik zergapetzen dira eta beste herrialdean salbuetsita geratzen dira. Normalena, elkarrekotasuna izaten da.
29. Errentak, lurraldetasun printzipioaren arabera zergapetzen dira.
30. Berriz ere, errealde bakoitzak bere lurraldean sortutako errentak zergapetuko ditu, baina (pertsonea fisikoa baldin bada) bere errenta mundiala (ez lokala) duen SP bati dagokion progresibotasuna aplikatuko zaio bizi den herrialdean.
31. Errentak Bizilekuaren Printzipioaren arabera zergapetzen dira.
32. Herrialde bakoitzak bere herrialdean ekoiztutako errentak zergapetzen ditu eta baita bere egoiliarrek lortutako errenta globalak ere. Zergapen-bikoitz hori zuzentzeko, bizilekuko herrialdean lortu den kuotatik atzerrian ordaindutako zergak kentzen dira (ordaindutako gisa).
33. Kasu honetan bizilekuan aplikatutako aplikatutako kenkariak ezingo du gainditu (atzerriko errenten aitorpea bizilekuko herrialdean egin izan balu) atzerriko errentek bizilekuko herrialdean ordainduko lituzketeen zergak.
34. Herrialdeen arteko akordio bat da, zeinetan inputazio metodoaren barruan, herrialde baten pizgarri fiskalak egongo balira, pizgarri hauek ordaindutako zerga gisa kontsideratuko liriateke SParen bizilekuaren herrialdean, bizilekuaren herrialde horrek "zerga horiek biltzea" ekiditzeko.
35. Kasu honetan, dibidenduek jasandako zerga ekonomikoak ere kenkari bezala aplikatu ditzakegu.
36. Bizilekuko herrialdeko oinarri globaletik, errenten iturria den herrialdean ordaindutako zergak kentzean datza (gastu kengarri bat bezala).
37. Herrialdeetako batenn kapitalaren produktibitate altuagoa egongo balitz, bi herrialdeentzat onuragarriagoa izango litzateke produktibitate bajuagoko herrialdetik produktibitate altuagoko herrialdera kapitala pasatzea. Kapitalaren produktibitate marjinala beherakorra denez, herrialde batera kapitala eramaterakoan herrialde honen produktibitate marjinala jeitsiko litzateke eta prozesua jarraitu beharko litzateke bi herrialdeen kapitalaren produktibitate marjinalak berdindu arte.

38. Ez, orokorrean, herrialdeetako teknologiak desberdinak direnez, hauek ekoizpen funtzio eta profuktibitate marjinalaren funtzio desberdinak izango dituzte eta ondorioz, produktibitate marjinala berdintzeko kapitalaren kantitate desberdinak beharko dira. Baldintza honek, produktibitate marjinalaren funtzio berdina duren herrialdeen kasuan soilik inplikatu luke kapitalaren zenbateko berdina. Begiratu 19. gardenkiko irudia.
39. Arrazoa zera da; gerta daiteke errenta mundiala maximizatzea, baina honek ez du esan nahi bi herrialdeek beraien errentak hobetuko dituztenik. Gerta daiteke, eta gainera hau gertatzea ohikoena da, herrialde bat hobetzea eta bestea ez (ikus II gaiko 4. galdera). Beraz, produktibitate marjinal berdintzeak ez du esan nahi herrialde bateko errenta nazioanala maximizatuko denik. Herrialde horren ikuspuntutik, kapitala irtetzen utzi beharko du (kapitalaren esportazioa) inbertsioaren itzulerak kapital hori herrialdean bertan inbertitu izan balitz emango lituzkeenak baino altuagoak izan arte. Hori bai, “barruan” ekoizten duena kapitalaren produktibitatea da (berdin da zergak ordaintzera bideratzen baden edo kapitalistaren oraindarsariak ordaintzeko erabiltzen den, etekin gordinak). Aldiz, “kanpoko” itzulerak, kapitalaren ordainsariak ken beste herrialdean ordaindutako zergak izango lirateke, hau da, etekin darbiak.
40. Arrazoa zera da: herrialde bateko inbertitzaileak beste herrialde baten inbertituko du beste herrialde batean lortzen dituen irabaziak bere herrialdean lortuko lituzkeen irabaziak baino altuagoak diren bitartean, eta honek, inbertitzailearen irabaziak herrialdeen artean berdintzea eragingo luke. Inbertitzaileak kontuan hartzen dituen irabaziak zergapenaren ondorengo irabaziak dira (ez zaio inporta kapitalaren ordainsari altuak egotea, zergak ere altuak baldin badira), hau da, etekin garbiak, eta hau da herrialdeen artean berdinduko dena.
41. Egoiliarak diren pertsona fisiko eta juridikoek betebeharrak pertsonalagatik PFEZan eta SZan. Egoiliarak ez diren pertsona fisiko eta juridikoek betebeharrak errealagatik EEZan.
42. Subjektu pasiboa Sozietateen gaineko Zerga Egoitza espainiar estatuan duten pertsona juridiko edo erakundeak. PFEZaren subjektu pasiboak: ohiko egoitza edo bizilekua espainiar estatuan duten pertsona fisikoak.
- Lortutako errenta totalarekiko (errenta mundiala) zergapena, edozein delarik lortu den lekua eta ordaindu duenaren bizilekua.
43. Subjektu pasiboa EEZren kasuan: Espainiar estatuan errenta lortzen duten pertsona fisiko eta elkarte ez-egoiliarak  
Bi zergapen posible existitzen dira:

- Establezimendu iraunkorrek bitartez lortutako errentak: establezimendu honi egotzi ahal zaion errenta (mundial) totalaren zergapena.
- Establezimendu iraunkorren bitartez lortu ez diren errentak: espainiar estatúan ekoiztutako edo lortutako errenten zergapena.

44. Pertsona fisiko bat egoiliarra kontsideratzen da baldin eta:

- Lurralde espainiarrean urte natural bateko 183 egun baino gehiagotan badago. 183 egunen kalkuluan konputagarriak izango dira kanpoan eman diren aldi baterako egonaldiak. Salbuespena, erresidentzia fiskala beste herrialde batean izatea frogatzea. Paradisu fiskalen kasuan, urte natural batean 183 egun baino gehiago egon izana frogatu behar izatea eska daiteke.
- Espainian kokatuta badago, zuzenean edo zeharka, beren enpresa- edo lanbide-jardueraren edo interes ekonomikoen gune nagusia

45. Zergadunak ohiko egoitza Espainiako lurraldean duela ulertuko da, kontrakoaren frogarik ezean, baldin eta:

- Espainiako lurraldean badago haren ezkontidearen -legez bereizita ez badago- eta haren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza.
- Egoitza paradisu-fiskal batera aldatzea: zergapena PFEZaren bitartez egoitza aldaketa egiten den urtean eta ondorengo lau urteetan (Espainiar nazionalitatea daukatenei soilik aplikatuko. Egoitza Andorran duten langileak salbuetsita daude.

46. Zergapena PFEZaren bitartez egiteko aukera dezakete baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Pertsona fisikoa izatea, EBko beste herrialde baten bizitzea eta lanaren errendimenduagatiko eta aktibitate ekonomikoengatiko beraien errentaren %75a Espainian lortzea.
- Funtzionario diplomatiko, konsulatuetako funtzionario eta nazioarteko elkartetako funtzionarioentzako arau bereziak existitzen dira.
- Egoitza espainian dute baina EEEZ aplikatzen zaienak.

47. Arau orokorra. Pertsona jurikiko batek egoitza-fiskala espainian duela kontsideratzen da baldin eta:

- Espainiar legeen arabera eratu bada.
- Helbide-soziala espainiar lurraldean badu.
- Benetako zuzendariaren egoitza espainian egotea.

Ulertuko da entitate baten benetako zuzendaritzaren egoitza Espainiako lurraldean dagoela handik zuzendu eta kontrolatzen direnean entitatearen jarduera guztiak

48. Zerga Administrazioak ulertuko du paradisu fiskal baten edo tributazio eza dagoen herrialde baten dagoen elkarte bat espainiar egoiliarra dela baldin eta:
- Entitatearen aktibo nagusiak, zuzenean zein zeharka, Espainiako lurraldean kokatutako ondasunak edo lurralde horretan bete edo erabiltzen diren eskubideak izatea.
  - Entitatearen jarduera nagusia Espainiako lurraldean egitea
  - frogatzen bada arrazoi ekonomiko baliiodunak eta funtsezko arrazoi enpresarialak daudela entitatea eratzeko eta haren jardunerako eta frogatzen bada, orobat, entitatearen eraketa eta jardunerako arrazoiak ez dela baloreen eta bestelako aktiboen kudeaketa soila.
49. Egoitza bikoitzak sortzen duen gatazkaren kasuan: Egoitza (zein estaturen alde) finkatzerako orduan jarraitu beharreko kriterio-iherarkizatuak hitzarmenetan zehazten dira:
- Pertsona fisikoak: Egoitza iraunkor erabilgarri baten existentzia, interes-zentru bitala, ohiko etxebizitza, nazioanaltatea edo elkarren arteko adostasuna.
  - Pertsona juridikoa: benetako zuzendaritzaren egoitza
50. Paradisu-fiskal gisa kontsideratzen diren lurraldeek honako ezaugarri hauek dituzte:
- Zergapen eza edo baxua
  - Ezaugarri garrantzitsuena: opakutasuna
51. Paradisu-fiskalak legalki zehaztu behar dira .(1080/1991 Decretua)
- Paradisu-fiskala izateari utziko diote baldin eta bereziko hori aipatzen duen Espainiarekin informazioa trukatzeko klususula duen hitzarmen bat edo zerga arloko informazioa trukatzeko akordio bat sinatzen badute, eta akordio hori martxan jartzen den unetik aurrera
52. Tributazio eza dagoen herrialdea dela kontsideratzen da baldin eta, informazioa trukatzeko mekanismoa existitzen bada, baina ez da zuzeneko zergapena aplikatzen (ez da PFEZ, SZ edo EEEZren baliokidea). Zerga baliokide bat aplikatzen dela kontsideratzen da Espainiarekin hitzarmen fiskal bat duten herrialdeetan.
53. -
- Establezimendu iraunkorra
  - Jarduera burutzenden lekua
  - Jarduera erabiltzen den lekua
  - Etekina sortzen duen entitatearen egoitza
  - Ondasunaren edo eskubidearen egoera
  - Ordaintzailea



54. “Establezimendu iraunkorra” elkartze puntua “Jarduera ekonomikoak” kategoriari aplikatzen zaio.
55. “Jarduera burutzen den lekua” elkartze puntua “Establezimendu iraunkor gabeko jarduera ekonomikoak”, “Artista edo kirolarien jarduerak”, “Jarduera pertsonaetik zuzenean zein zeharka datozen etekinak” eta “Pentsioak” kategorieri aplikatzen zaie.
56. “Jarduera erabiltzen den lekua” elkartze puntua “Emandako zerbitzuak”, “Kanonak” eta “Kapital propioak hirugarren bati lagatzeagatik lortutako interesak eta bestelako etekinak” kategorieri aplikatzen zaie.
57. “Etekina sortzen duen entitatearen egoitza ” elkartze puntua “Funts propioetan parte hartzeagatik lortutako dibidenduak eta bestelako etekinak” eta “Baloreengandik lortutako ondare-irabaziak” kategorieri aplikatzen zaie
58. “Ondasunaren edo eskubidearen egoera” elkartze puntua “Ondasun-higiezinaren etekinak ”, “Ondarean ondasun-higiezinaren irabaziak” eta “Gainontzeko ondasun-higiezinaren irabaziak” kategorieri aplikatzen zaie.
59. “Ordaintzailea” elkartze puntua “Ordainsari publikoa”, “Nazioarteko itsas- edo aire-nabigazioko langileak ”, “Pentsioak ”, “Administratzaileen ordainsariak”, “Kapitalen lagatzeagatik lortutako interesak eta bestelako etekinak”, “Kanonak” eta “Kapital higigarrien bestelako etekinak” kategorieri aplikatzen zaie .
60. EEEZtik salbuesitako errentak honako hauengandik lortuak dira:
- Europar Batasuneko egoiliarrek, zor-publikotik, ez-egoiliarren kontuetatik, ez-egoiliarrek espainian igorritako baloreetatik edo preferenteen partaidetzetatik eta bestelako finantza-tresnetatik eratorritako.
  - Europar komunitatean bizi direnek lortutako ondarean ondasun-higiezinaren irabaziak, salbuespenak, beraien aktiboa ondasun-higiezinetan oinarritzen den elkarteen kapitalen partaidetzak eta partaidetza esanguratsuak (%25, 12 hilabete) direlarik
  - Kotizatutako balorren eskualdatzeak eta inbertsio-funtsetako partaidetzak itzultzetik eratorritako ondarean ondasun-higiezinaren irabaziak
  - Europar Batasuneko elkarteen matrizeei bideratutako etekinen distribuzioetatik eratorritako dibidenduak
  - Nazioarteko itsas- edo aire-nabigazioan, hutsik errentan eman, laga edo eskualdatutako edukiontzi, itsasontzi edo aireontziak.
  - Nazioarteko itsas- edo aire-nabigazioan, Espainiar lurraldea ukitzen duten elkarte atzerritarrak, elkarrekikotasunaren baldintzapean.
  - PFEZaren legeak salbuesten dituen pertsona fisikoek lortutako errentak. Adibidez beka, zeintzuek EEEZ-k ere salbuesten dituen.

61. Honako etekin hauek ez dira espainiar lurraldean lortutakoak kontsideratuko:

- Atzerritik etorritako instalazioen edo makinariaren instalazio edo muntaiak sortutako etekinak baldin eta ekintza hauek makinariaren edo instalazioan hornitzaileak egiten baditu, eta bere zenbatekoa ez bada elementu horien erosketaren prezioaren %20a baino gehiago.
- Nazioarteko salerosketen bitartez merkantziak ordaindu dituztenak, bitartekarien komisioa, osagarrien gastuak eta loturen gastuak barne.
- Establezimendu iraunkorra atzerrian duten pertsona edo elkarte ez-egoiliarren kargura ordaindutakoak, baldin eta hauei dagozkien prestazioak atzerrian dagoen establezimendu iraunkorraren jarduerarekin lotuta badago.

62. EEEZren zerga-oinarria etekinek eta ondare-irabaziek osatzen dute:

- Etekinen barruan sortzapenaren kantitate osoa, Gastuen kenkaririk gabe (jarduera ekonomiko batzuk salbu). Kantitate hau PFEZaren kriterioen arabera zehaztuko da, baina PFEZaren kenkariak aplikatu gabe (hainbat urtetako errentak, lanaren errendimenduak...). Berraseguru-eragiketen kasuan, etekina (berraseguruan) lagatuko prima izango da.
- EEEZren kasuan ondare-irabazia kontsideratuko da Ondare-irabazien zenbatekoa PFEZaren arautegiaren arabera, galerak konpentsatzeko aukerarik gabe. Espainiar lurraldean kokatutako ondasun-higieziinei egotzitako errenta ere ondare-irabazia kontsideratuko da, konkretuki Katastro-balioaren %2a.

63. - Sortzapen bakoitzarentzat zerga-ordainketa bat egiten da. Etekinen kasuan, sortzapena galdagarriak direnean edo kobratzen den momentuan egiten dira (lehenago gertatzen dena). Ondare-irabazien sortzapena ondare-aldaketa gertatzen denean ematen da. Alokatu gabeko ondasun-higieziaren errendimenduak 31/12an.

64. EEEZren zerga-tasak

<b>Orokorra:</b>	
<b>EB, Islandia eta Noruega zergadunak</b>	<b>20%</b>
<b>Gainontzeko zergadunak</b>	<b>24%</b>
<b>Dibidenduak, interesak:</b>	<b>20%</b>
<b>Ondare-irabaziak:</b>	<b>20%</b>
<b>Ondasu-higie zinen eskualdatzea (Ret.)</b>	<b>3%</b>
<b>Pentsioak: tarifa progresiboa:</b>	
<b>12.000,00 ra arte</b>	<b>8%</b>
<b>12.000,01 – 18.700,00</b>	<b>30%</b>
<b>18.700,01tik aurrera</b>	<b>40%</b>
<b>Ordezkaritza Diplomatiko eta Kotsularretako langileak</b>	<b>8%</b>
<b>Sasoiko langileak:</b>	<b>2%</b>
<b>Berraseguru-eragiketak:</b>	<b>1,5%</b>
<b>Itsas- edo aire-nabigazioak:</b>	<b>4%</b>
<b>2003/49/EE Zuzentarauko Kanon digitalak</b>	<b>10%</b>

65. Ez dago kenkari edo hobaririk edukitzeko eskubiderik. Soilik izango dira kengarriak dohaintzen ziozko kenkariak, atxikipenak edo konturako sarrerak eta PFEZ/EEEZ atxikipenen elkarrenganako kenketa.
66. Arau orokor gisa, establezimendu iraunkor gabe lortutako errentek EEEZren bitartez sortzapean bakoitzarentzat zerga-ordainketa berezia ordainduko dute.
67. Subjeto pasibo ez-egoiliarrak daude behartuak EEEZren bitartez aitortzera. Ondasun-eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea eta etekinen ordaintzailea dira erantzule solidarioak.
68. Salbuetsitako etekinak aitortzeko derrigortasuna dago, baina ez da aitortzeko derrigortasunik egongo baldin eta atxikipenei lotutako errenten kasuan burutu baldin bada atxikipena, baina Legez edo Konbenioz salbuetsita daudenak (ondasun-higie zinen plusbalioa salbu).
69. Aurkezteko epe orokorra errentaren sortzapeanik hilabete 1 da. Baina epe bereziak existitzen dira honako kasu hauetan:
- Erabilera propioko ondasun-higie zinen etekinak: aitorpenerako epea urtarrilaren 1etik ekainaren 20ra lurralde erkidean / ekainaren 30ra arte lurralde foralean. Ondare bakarra erabilera propioko etxebizitza baldin bada, sinplifikatutako aitortenagatiko aukera dago (hurrengo urte naturala).

- Ondasun-higiezinari lotutako ondare-irabaziak: Atxikipena burutzeko epea hilabete 1 da eta aitortza egiteko epea hurrengo 3 hilabeteak.

70. Likidazio epe batean, jasotzaile batengandik edo gehiagorengandik sortutako errenta desberdinen taldekatzea da aitortza kolektiboa. Hiru-hilabeteko periodikotasuna dauka. Ezin da aitortza kolektiboa egin honako kasuetan:

- Erabilera propioko ondasun-higiezinak
- Ondasun-higiezinaren konturako ondare-irabaziak
- Gastu jakin batzuen kenkaridun sarrerak
- Apirila, uztaila, urria eta urtarrileko lehen 25 egunetan lortutako etekinak

71. Nazioarteko zergapen bikoitza ekiditzeko neurrien garrantzia argi uste duten faktoreak honako hauek dira: Elkarmenpekotasun ekonomikoaren hazkundea eta gerra osteko garaian izan den ELGEko (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) herrialdeen arteko kooperazioaren hazkundea.

72. Aberastasun bera zergapen denboraldi berean behin baino gehiagotan zergapetzen denean gertatzen da zergapen bikoitza.

Hau, herrialde desberdinek duten zerga-esleipenen printzipioengatik da.

73. Lurralde-printzipio edo Jatorrian Zergapena, herrialde bateko arautegiko kokapenaren arauak ezartzen dutenaren arabera herrialde horretan sortutako errenta kontsideratzen den errentari zergapena ezartzean datza, edozein delarik jasotzailea eta bere bizilekua.

74. Personalista-printzipioa edo egoitzaren zergapena, herrialdeko arautegiaren arabera fiskalki egoiliarra kontsideratzen den pertsona edo elkarte bat zergapetzean datza; mundu mailan lortutako edozein errenta zergapetzen zaio, edozein delarik bere.

75. Zergapen-bikoitz ekonomikoa, errenta beraren zergapena pertsona desberdinei ezartzea da..

76. Zergapen-bikoitz juridiko internazionala, denbora epe berdinean subjektu pasibo berdinari zerga-materia berdinari dagokion antzeko zergak bi (edo gehiago) estatu desberdinetan ezartzen zaizkionean gertatzen da.

77. Alde bateko, alde biko eta aldeanizkoitzeko soluzioak ezarri daitezke.

Alde batekoak, herrialde batek bere bere barne zerga-sistema normatiboan autonomoki eta independenteki barneratu dituen xedapenak dira, horrela “Nazioarteko zerga – zuzenbideko arauak” eratu.

Aldebikoak, subiranotasun fiskalek beraien legeen artean egon daitezkeen desadostasunak (bai esleipen-irizpide desberdinak hautatu izan dituztelako, edo baita zerga-erlazioko edozein elementu desberdin definitu edo zehaztu dituztelako, edo baita zergapen bikoitza edo zergapen eza eragiten duen beestelako edozein desadostasun) elimintzeko adosten dituzten akordioak dira. Artikulazioa, normalean, zergapean-bikoitzeko hitzarmenen bitartez egiten da.

Aldeanizkoitzekoak, eremu-geografiko berdineko (Europar Batasuna) edo antzeko garapen berdina duten eremuko (ELGE) agintari fiskaleak, hau da, interes eta arazo berdinak dituzten erremuetako agintari fiskalek guztiengan eragina duten egoerei soluzioa emateko asmoz, kontsideratu beharreko printzipioak elkarrekin zehazten dituztenak dira, edota bakoitzak bera araudian dagozkion aldakuntzak burutzen dituztenean.

78. Zergapen-bikoitzaren hitzarmenen helburuak honako hauek dira: Nazioarteko zergapen-bikoitza ekiditzea, Zerga-ordaintzen sahespena eta zerga-iruzurra ekiditzea, Enpresen segurtasun-juridikoa sendotzea eta Nazioarteko erlazio-ekonomikoak eta merkatal-erlazioak sustatzea.

79. Zergapen-bikoitzaren hitzarmenen egituran honako hauek barneratzen dira: Hitzarmenaren aplikazio eremua, definizioak, errenten gaineko zergapena, ondarearen zergapena, zergapen-bikoitzea elimintzeko metodoak, xedapen bereziak eta azken xedapenak.

80. Zergapen-bikoitza ekiditzeko bi método existitzen dira: Salbuespen metodoa eta Inputazio- edo kreditu-fiskal metodoa.

Salbuespen metodoa aplikatzen den momentuaren arabera jatorrian salbuespena edo jomugan salbuespena izan daiteke. Gainera, salbuespen osoa edo progresibotasunarekin salbuespena izan daiteke.

Inputazio- edo kreditu-fiskal metodoan inputazio osoa, inputazio partziala edo inputazio partziala hobariekin planteatu daiteke.

81. Zergapen-bikoitzaren hitzarmenetan honako xedapen berezi hauek barneratzen dira: diskriminazio eza, lagunarteko prozedimendua, informazioaren elkarbanatzea eta zerga-bilketan laguntza.

82. Diskriminazio ezaren xedapen bereziak honako hau Dakar berarekin:

- Hitzamena sinatuen duen beste estatuko nazionalitatea duen pertsona bati, zein baldintza berdinetan aurkitzen den, tratamendu-fiskal diskriminatzailea egiteko debekua.
- Ezin da tratamendu kaltegarriago bat eman, baina bai tratamendu onuragarriagoa
- Nazionalen eta atzerritarren zergapena: zerga-oinarriaren zehaztapenaren modalitate antzekoak, antzeko likidazioa, ordainarazpen forma eta tipoa ezin da kaltegarriagoa izan.

83. Lagunarteko prozedimendua:

- Bi estatuetan eskumeneko agintariak arduratu beharko dute hitzarmenaren xedapenekin bat ez datozen egoera batean dauden zergadunen egoera modu adiskidetsu batean konpontzen.
- Zergadunak, 2 urteko epean agintariak akordio adiskidetsu bat lortzea galarazi duten ebatzi-gabeko gaiak arbitrajera bidaltzea eska dezake.

84. Zerga-bilketan laguntzearen xedapen bereziak honako hau arautzen du:

- Artikulu honen bitartez arautzen da hitzarmena sinatu duten estatuek zerga-bilketan elkar laguntzea eta baita laguntza hori mugatzeko eskubidea.
- Aurreko artikuluari loturik, elkarri lagundu ahal izateko beharrezkoa baita informazioa modu eraginkor batean elkar-banatztea.

85. Espainia eta Frantziaren artean sinatutako zergapen-bikoitzaren hitzarmenak honako zerga hauek barneratzen ditu:

Espainia

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
- Sozietateen gaineko Zerga
- Ondarearen gaineko Zerga
- Errentaren eta ondarearen gaineko tokiko zergak

Frantzia

- Errentaren gaineko Zerga
- Sozietateen gaineko Zerga
- Soldaten gaineko Zerga
- Ondarearen gaineko solidaritate

86. Espainian, Frantzian ordaindutako zerga baten baliokidea den zergapen-bikoitzagatiko kenkari baten bitartez ezabatzen da zergapen-bikoitza, non kenkari horrek ezingo duen izan kenkaria baino lehen kalkulaturako espainiar zerga baino altuagoa. Espainian bizi den baten jasotako errenta espainian zergak ordaintzetik salbuetsita baldin badago, errenta hau kontuan hartu daiteke gainontzeko errentek ordaindu beharreko zerga kantitatea kalkulatzeko orduan.

87. BEZa zeharkako izaera duen zerga bat da gaitasun ekonomikoaren zeharkako adierazpen baten gain erortzen den zerga bat baita, hain zuzen ere, ondasun eta zerbitzuen kontsumoaren gain.

88. Honako operazio/eragiketa hauek zergapetzen dira:

- Beraien jardueraren garapenean enpresario eta profesionalek egindako zerbitzuen prestazio eta ondasunen entregak.

- Ondasunen erosketak komunitatean barnean. Orokorrean, enpresario edo profesionalak egindakoak dira, baina batzutan partikular batek egindakoak izan daitezke (adibidez, garraio bide berrien eskurapena komunitatean barnean).
- Enpresario, profesional edo partikular batek egindako ondasunen inportazioak.

89. Inbertsio-ondasunen erosketek jasaten duten kuotei ematen zaien tratamendu fiskalaren arabera, hiru BEZ klase existitzen dira:

- Produktu Gordina motako BEZa:

Inbertsio ondasunen erosketak gainontzeko beste ondasunen erosketak bezala zergapetzen dira, baina ezin da ondasun hauen erosketak jasandako ezer kenkari bezala aplikatu. BEZak salmentetan eragiten du eta inputen erosketek jasandako BEZa soilik aplikatu daiteke kenkari bezala.

- Errenta motako BEZa

Inbertsio ondasunen erosketak gainontzeko beste ondasunen erosketak bezala zergapetzen dira, baina ondasun hauen erosketan jasandako zergapena soilik kenkari gisa aplikatu ahalko da aktibo hauek amortizatzen doazen einean.

- Kontsumo motako BEZa (Ebean erabilitakoa)

Inbertsio ondasunen erosketak gainontzeko beste ondasunen erosketak bezala zergapetzen dira, baina ondasunen erosketan jasandako guztia aplikatu daitezken kenkari gisa.

90. Legeak, **zerga-tasa orokorra**, %21a, eta **murritzutako zerga-tasa bi**, %10a eta %4a, ezartzen ditu operazio jakin batzuei trataera onuragarri bat emateko.

91. Enpresario edo profesionalak, beraien salmenta edo zerbitzuen prestazioengatik, erosleei dagokien BEZaren tasa eragiten diete. Enpresarioak kuota hauek Ogasun Publikoan sartzeko betebeharra dauka.

Gainera, beraien aitorten-likidazio periodikoetan, beraien erosketengatik jasandako kuotak, kenkari gisa aplikatzeko eskubidea daukate.

Likidazio bakoitzean bezeroei eragindako BEZa aitortzen da, zenbateko honetatik erosketetan eta hornitzaileei egindako erosketetan jasandako BEZa kenduz, emaitza positiboa edo negatiboa izan daitekeelarik. Emaitza positiboa baldin bada, Ogasun Publikoan sartu behar da. Ekitaldian zehar emaitza negatiboa bada, ondorengo aitorten-likidazioetan konpentsatuko da. Ekitaldiaren bukaeran, azken aitorpenean, emaitza negatiboa baldin bada, itzultzea eska daiteke edo ondorengo likidazioetako saldo negatiboekin konpentsatzea eska daiteke.

92. Enpresario edo profesionalak, beraien BEZaren aitorpenean, ez dituzte esportazio eta inportazioak integratzen, zergak aduanan ordaintzen baitituzte. Aldiz, komunitatea barneko operazioen kasua desberdina da eta BEZaren aitorten-likidazioan barneratzen dira.

93. Komunitatearen barneko garraioan trataera desberdin bat existitzen da partikularrek egindako erosketa bada edo enpresarioek egindakoa bada.

Partikularrei egindako ondasunen entragak jatorrizko herrialdean arau orokorra erabiliz zergapetzen dira, hau da, entrega egiten duen enpresarioaren herrialdean.

Enpresario edo profesionali egindako entregak (BEZaren subjeto pasiboak) helmugako herrialdean zergapetzen dira; hau da, ondasuna erosten duen enpresarioaren herrialdean, europar komunitatearen barruan egindako ondasunen erosketa gisa.

94. Sozietateen gaineko Zerga izaera pertsonala duen zuzeneko zerga bat da, zeinek sozietateen eta gainontzeko erakunde juridikoen errentak zergapetzen dituen. Arau orokor gisa, subjeto pasiboak nortasun juridikoa duten erakundeak dira.

95. SZaren zerga-oinarria, zerga aldian lortutako sarreran garbi totalak gehi zerga aldian egon diren egindako kapitalen aldakuntza garbiak da. Zerga-oinarria, aurreko zerga-aldietako zerga-oinarri negatiboekin konpentsatuz murriztu daiteke.

96. Zerga-oinarria honako hauek **zehaztuko dute**:

- Zuzeneko zenbatespenaren modalitatea, emaitza kontablea ezarritako arauen aplikazioaren bitartez zuzenduz.
- Edo zenbatespen objetiboa, arauak bere aplikazioa zehazten duenean. Kasu honetan, zerga-oinarria erabat edo partzialki zehaztu ahalko da, normatibak zehazten duen jarduera-sektoreari seinu, indize edo moduloak aplikatuz

97. SZam orokorrean, honako zerga-tasak aplikatzen dira:

Enpresa Mota	Lurralde-forala	Lurralde komuna
Handia	%28	%30
Ertaina	%28	%30
Txikia	%24	%25

98. SZaren **kuota likidoa** lortzeko, **Kuota osoari** (zerga-oinarria x zerga-tasa) kenkariak eta burututako atxikipenak eta konturako ordainketak kentzen zaizkio.



99. PFEZa erabiltzen da, errenta zergadunen ordainketa-ahalmenaren indize egoki bat dela uste delako eta birbanaketa helburuak lortzeko modu eraginkor bat dela uste delako.
100. Nortasun pertsonala eta subjetoa duen zerga zuzen eta progresibo bat da, zeinek pertsona fisikoen errenta zergapetzen duen. Zergadunek, gauzatutako ekintza desberdinetatik, lortutako errenta edo aberastasuna zergapetzen du.
101. Zerga-oinarria etekin garbiek (=etekin gordinak- kengarriak diren gastuak) eta gauzatutako capital irabazi garbiak osatzen dute.
102. Lortutako kapitalaren etekin garbi eta irabazi garbi hauek taldekatu egiten dira, beraien nortasuna kontuan hartuz zerga-oinarria bi taldetan banatzen da: zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria.

#### Zerga-oinarri orokorra

- Menpeko-pertsonalaren lanaren etekin garbiak
- Jarduera enpresarial eta profesionalen etekin garbiak
- Ohiko egoitza ez den ondasunen alokairutik lortutako kapital higiezinaren etekin garbiak.
- Kapital higiezinaren beste etekin garbi batzuk
- Ondare-elementuen transmisio gabe lortutako kapitalaren irabazi garbiak

#### Aurrezkiaren zerga-oinarria

- Ohiko egoitzaren alokairutik lortutako kapital higiezinaren etekin garbiak
- Kapital higiezinaren etekin garbiak
- Ondare-elementuen transmisiotik lortutako kapitalaren irabazi garbiak

103. Lehenik eta behin, beharrezkoa da zerga-oinarria eta aurrezkiaren zerga-oinarria kalkulatzeko, beraietako bakoitzean aurreko galderaren erantzunean aipatutako etekin garbiak eta gauzatutako kapital irabazi garbiak barneratuz. Ondoren, dagozkien likidazio-oinarriak kalkulatu dira, oinarrian aplikagarriak diren murrizketak kenduz. Likidazio-oinarriak ezin dira inoiz negatiboak izan. Likidazio-oinarriak dagozkien zerga-eskalekin zergapetzen dira, honela PFEZaren kuota osoa lortuz. Ondorengo pausua kuota likidoa kalkulatzeko da, kuotan dagozkion murrizketak kenduz. Kuota likido honi burututako atxikipeak eta konturako ordainketak kentzen zaizkio (existitzekotan), kuota diferentziala gisa ezagutzen dena lortzeko. Likidazioaren emaitzak (kuota diferentziala) normalean **zerga-zorreakin** bat egiten du. Aldiz, kuota diferentziala 0 baino handiagoa denean eta aitortpena epe kanpo aurkezten denean, zerga-zorra errekargu eta berandutze-interesekin haunditu daiteke.